



GREBARI BURUZKO INFORMAZIOA

LAUDIO IKASTOLAKO LANGILEEK BAT EGIN DUTE URTARRILAREN 30ERAKO GREBA DEIALDIAREKIN

Euskal Herriko eskubide sozialen kartak greba orokorra deitu du urtarrilaren 30erako. Eragile sozial talde anitza bildu da deialdira ELA, LAB, STEILAS, ESK, HIRU, ETXALDE eta EHNE sindikatuekin batera.

Hego Euskal Herriko Ikastoletako enpresa komite guztiek bat egin dute deialdiarekin eta Laudio Ikastolako langileek ere, Asanbladan, greba deialdiarekin bat egitea erabaki dute.

Hortaz, datorren ostegunean, Ikastolan ez da ohiko funtzionamendua egongo eta ezin izango dira bermatu zuen seme-alaben zaintza egin ahal izateko baldintzak. Izan ere, EAEko Lan eta Justizia Sailburuak Hezkuntza-sektorerako ezarritako ezinbesteko zerbitzuak baino ez ditugu bermatuko, hau da, egun horretan zuzendaritza eta zerbitzuetako pertsona bana baino ez dira Ikastolan egongo.

Hori dela eta, gure gomendioa seme-alabak egun horretan Ikastolara ez bidaltzea da.